

Musulmanek Iberiar penintsula konkistatzean, kristau asko iparraldean babestu ziren. Erresumetan eta konderritan antolatu ziren: Asturiasko erresuma, geroago Leongo erresuma izango zena, Gaztelako konderria, Iruñeko erresuma, Aragoiko konderria eta Kataluniako konderriak.

Kristau-erresumak ia zortzi mendetan borrokatu ziren musulmanen kontra horien lurraldea konkistatzeko. Hori dela eta, garai horri **Errekonkista** deritzo.

Denborarekin, kristauak batu, eta lau erresuma handi sortu zituzten: **Gaztelako Koroa, Aragoiko Koroa, Portugalgo erresuma** eta **Nafarroako erresuma**.

1212an errege kristauak elkartu egin ziren eta musulmanak garaitu zituzten **Navas de Tolosako guduan**. Kolpe erabakiorra izan zen musulmanen penintsulako egonaldiarentzat.

Urte askoz borroketan ibili ostean, XV. mendearen bukaeran, kristau-erresumek ia Iberiar penintsula osoa konkistatu zuten.

Kristauen **errekonkista 1492an amaitu** zen, Errege-erregina Katolikoek Granadako Erresuma konkistatu zutenean, penintsulako azken lurralde musulmana.



JARDUERA ➤ Klikatu hemen [Navas de Tolosako gudari buruz eta errekonkistari buruz gehiago jakiteko](#).